

Jardueren txostena 2025



**Mugarik Gabe
Nafarroa**

Hegoaldearekin lankidetzan jarduteko GKE, 1987an sortua



Zapalduen Antzerki Tailerra Lorena Rofférekin (METOCA) EncontrArten, Piparrika

Gure nortasuna

- Ipar-Hego Globala desberdintasunen kontzientzia eta ikuspegi kritikoa
- Genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik emakumeen antolakuntzari laguntzea
- Arrazakeriaren eta kolonialismoaren aurkako ikuspegia
- Interdependentzia eta ekodependentzia
- Bake-kultura, desmilitarizazioa eta protesta sozialen kriminalizazioa salatzea

Proiektuak

LANKIDETZA:

AMIVR (Guatemala)

AIMMIM (Guatemala)

METOCA (Guatemala)

CPDH Madeleine Lagadec (El Salvador)

HEZKUNTZA EZ FORMALA:

Tejiendo Solidaridad –Auzotik Mundura

SENTSIBILIZAZIOA:

Sembrando Alternativas, Alianzas por el Buen Vivir y la Justicia Social

Sarean lan egiten:



LANKIDETZAKO PROIEKTUAK

GUATEMALA



PNPDIM 2026-2041 eguneratzeko prozesua abian jartzea, Zaculewen. Argazkia AIGMIM

AMIVR

Asociación de Mujeres Indígenas 'Voz de la Resistencia'



AMIVR antolakunde komunitario bat da, Erresistentzian egondako komunitateetako 600 emakumek baino gehiagok osatzen dutena, gerraren ondorioz deserrotutako herriak, alegia, Quiché mendilerroan babestu zirenak urteetan, armadaren jazarpenetik ihes egiteko. Guatemalako Ixil kultur eremuko (El Quiché departamendua) 25 emakumek sortu zuten 2010ean.

AMIVRren helburua garapen integrala sustatzea da, komunitate, etnia, kultura eta genero ikuspegiarekin. Komunitate eta erakunde indigenen esperientziaren barruan, eta zehazkiago elkartearen beraren esparruan, emakumeen problematika espezifikoaren pertzepzioan, kolektibo horri zuzendutako proiektuetan parte hartzean eta euren autoantolakuntzan aurrera egiteko beharrean kokatzen da.

Elkarteak 6 ardatz lantzen ditu:

- Memoria historikoa

Hezkuntza eta prestakuntza politikoa

- Antolakuntzaren indartzea eta emakumeen tokiko boterea

- Osasun alternatiboa

- Ama Lurrarekin elkarbizitza

- Garapen eta zerbitzu komunitarioak

Proiektua

30.829 € — Iruñeko Udala

Ura banatzeko Sarearen instalazioa,
El Tesoro Nueva Esperanza komunitatea
(Patulul, Suchitepéquez)



***Familia barruko indarkeriari
buruzko tailerra,
Hegoaldeko emakumeen
batzordeekin***



***2023-2025ko formakuntza politikoaren
prozesua ebaluatzeko saioa***



AIGMIM

Asociación Integral de Mujeres Indígenas Maya Mam



AIGMIM Quetzaltenango departamenduko Maya Mam herriko emakumeen elkarte da. Emakumeen giza eskubideak, eskubide ekonomikoak, politikoak eta sozialak defendatzeko ekintzak garatzen ditu, genero-ekitatea, eragin-politikoa, prestakuntza eta ekintza produktibo eta bidezko merkataritzaren sorkuntza oinarri hartuta, San Juan Ostuncalco, San Martin Sacatepéquez, San Miguel eta Cajolá udalerrietan, eta Quetzaltenangoko departamenduan.

Elkarte 25 emakume-talde osatzen dute, 4 udalerrietan antolatua, herritarrek parte hartzeko eta eragiteko guneetan emakumearen parte-hartze politikoa indartzeko. Gazteriarekin eta haurtzaroarekin ere egiten dute lan.

Bere lana 3 programetan antolatzen da:

Antolakuntza eta Erakundeak Sendotzea

Taldeak, Zuzendaritza Batzordea eta parte-hartze komunitarioko organoak eratzea

Ekonomikoki Sendotzea

Nekazaritza eta abeltzaintzako ekintzailetzak prestatu eta abian jartzea. Kyxim Qya kooperatiba, produkzioarako eta merkaturatzeko.

Partehartze Politikoa eta Eragina

Tokiko, nazioko eta nazioarteko erabaki-guneetan parte hartzea; sendatze-prozesuak eta genero-ekitatea

Proiektua

"Mujeres maya mam se articulan para procesos de fortalecimiento"

Programaren 2. urtea: 200.000 € — Nafarroako Gobernua



*Kyxim Qya Kooperatibaren
Ohiko Batzarra*

*Kyxim Qya Kooperatiba
San Juan Ostuncalco-ko Azokan*



*Emakumearen Nazioarteko
Egunaren Ospakizuna San Miguel
Sigüilán*



*Maya Herriaren –CPO- Kontseiluaren
Batzar Nazionala*



*Sendabelarrak lantzeko trebakuntza
eta laguntza tekniko emateko
tailerra*

*Azenarioaren laborantzan gaitzeko eta
laguntza tekniko emateko tailerra*



METOCA

Multiplicación y Exploración del Teatro de las Oprimidas en Centro América



Asociación Payasos Atz'anem K'oj – Proyecto Metoca 2001ean hasi zen lanean, eta, ordutik, Giza Eskubideen alde eta gizarte-antolaketa bultzatzeko eta Erdialdeko Amerikako komunitateen eskubideen defentsan eta erabileran konprometitutako protagonistei prestakuntza politikoa emateko lan egiten du, Guatemalako landa-eremuetan arreta jarritz.

Herri hezkuntzatik eta Zapalduen Antzerkitik lan egiten du, emakumeen oinarritzko taldeak eta zaugarriak diren beste talde batzuk emantzipatzeko, errealitatearen azterketa kritikoa eta bizi dituzten indarkeriak arintzeko intzidentzia estrategiak garatzea proposatuz. Ikuspegi feminista batetik, emakumeen ahotsa, kolektibotasuna eta protagonismoa indartzen dituzten proiektuak garatzen dira, eta haien eskaerei irtenbidea ematen diete.

Urte hauetan, biderkaketa-prozesuen bidez, eskualdeko 70 talde komunitario baino gehiago trebatu ditu. Eragin politikoko prozesuak burutu dituzte desgaitasuna duten emakumeekin, GIBa duten emakumeekin, gazteekin eta migratzaileekin Erdialdeko Amerikan eta Mexikon.

Proiektua

"En escena por nuestros derechos: Fortalecimiento de mujeres con discapacidad de Chiquimula y Petén a través del Teatro de las Oprimidas"

40.000 € — Nafarroako Gobernua

*'Mi Cuerpo, Mi Escena' Jaialdian
egindako talde-performancea
Panajachelen*



*Desgaitasuna duten emakumeentzako sexu-indarkeriari buruzko elkarriketa
'Mi Cuerpo, Mi Escena' jaialdian*



*'Rompiendo Límites' (Chiquimula) taldearen "Si te dieras Cuenta" Antzerki Foroa
'Mi Cuerpo, Mi Escena' jaialdian*



LANKIDETZA PROIEKTUAK

EL SALVADOR



Conmemoración de la Masacre de Tecoluca. Foto CPDH ML

CPDH 'Madeleine Lagadec'

Centro Para la Promoción de los Derechos Humanos



CENTRO PARA LA PROMOCIÓN
DE LOS DERECHOS HUMANOS
"Madeleine Lagadec"

1992an, El Salvadorren 12 urteko gerra odoltsuaren ondoren, gatazkan zeuden armaden artean Bake Akordioak sinatu ziren bake iraunkor baten oinarriak finkatzeko. Testuinguru horretan, borrokalari ohiak, internazionalistak eta nekazariak, giza eskubideen urraketa guztiak dokumentatzeko helburuarekin antolatu ziren, "Lagadec" Zentroa izena jarriz, 1989an El Salvadorreko armadak torturatu, bortxatu eta eraildako erizain frantsesaren omenez.

Zentroa "Lagadec" Giza Eskubideak Sustatzeko Zentroa izatera pasatu zen, eta bere helburua Giza Eskubideen duintasunaren eta errespetuaren kultura osoa sortzen laguntzea izan zen, errealitatetik abiatuta eta herritarrek banaka edota kolektiboki eskubide horiek erabiltzeko eta defendatzeko duten gaitasuna garatuz. Arlo hauen inguruan lan egiten dute:

Formakuntza Giza Eskubideetan

Tailerrak El Salvadorreko landa-eremuetan, giza eskubideen defentsari buruz eta antolaketa-prozesuei laguntzea

Memoria Historikoa

Biziraun duten emakumeentzako arreta psikosoziala, lege-prozesuetan laguntzea eta oroitzapen-ospakizunak

Garapen Ekonomikoa

Gerraren ondorioak jasan dituzten komunitateekin ekintzailatza ekonomikoak eta ekoizpen-proiektuak prestatzea eta sustatzea

Proiektua

"Tejiendo el futuro desde la exigibilidad de derechos, la memoria histórica y el empoderamiento comunitario"

120.000 € — Nafarroako Gobernua



*Tailer psikosoziala gatazka armatutik
bizirik atera diren emakumeekin*

*Emakumeen Foroa
San Esteban Catarinan*



*El Calabozoko Sarraskiaren oroipena
Amatitan Abajon*



*Laura Lópezen erailketaren oripena
Suchitoton*



Bidai Teknikoa: Guatemala – El Salvador

Azaroaren 17tik abenduaren 19ra, Mugarik Gabe Nafarroako liberatu batek bisita egin zuen eta 4 erakunde bazkideekin elkartu zen.

METOCA

Solola, Guatemala.
parte hartzea desgaitasuna duten emakumeekin, maiekin,
trans-ekin, lesbianekin eta nekazariekin, indarkeriak
ikusarazi eta ZAre bitartez eragiteko estrategiak garatu
zituztenak. Talde teknikoarekin bilera.

1

CPDH Madeleine Lagadec

El Salvador. Ekoizpen-ekimenetara bisita.
Tecolucako Biktimen Elkartarekin bilera eta
gerrako memoria.

2

3

4

AMIVR

Quiché, Guatemala. Bilera intentsiboak
Zuzendaritza Batzordearekin eta talde
teknikoarekin, sei lan-ardatzak aztertze eta
edateko uraren eta gaitasun politikoaren proiektua
berrikusteko.

AIGMIM

Quetzaltenango, Guatemala. Bilerak talde
teknikoarekin, Zuzendaritza Batzordearekin eta
Kyxim Qya Kooperatibako Administrazio
Kontseiluarekin; bisitak nekazaritzako eta
abeltzaintzako ekintzailetzetara eta taldeekin
jarduerak



HEZKUNTZA ERALDATZAILEA PROIEKTUA



Elikadura burujabetzaren inguruko dinamika 'Auzotik Mundura' ekitaldian, Loraldea Baratze Komunitarioa

Tejiendo Solidaridad – Auzotik Mundura

Iruñeko Udala
30.000 €

2024-2025 ikasturtean zehar Tejiendo Solidaridad – Auzotik Mundura Eskola garatu zen Iruñeko bi auzotan, elikadura burujabetza, nekazal haziak eta eskubideen defentsa ardatz zituen prozesu komunitarioaren bidez.

Proiektua Mugarik Gabe Nafarroa, SETEM, REAS, SOS Arrazakeria eta hainbat kolektibo komunitario, gazte eta auzotarren artean koordinaturik burutu zen, Nafarroako Liburutegia, Nafarroako Hazien Sarea eta kultur eta hezkuntza eragileen laguntza ere izan zuelarik.



Prestakuntza esparruak

Ermitagaña-Mendebaldea-Donibanen **berezko haziei eta elikadura burujabetzari** buruzko tailerrak eman ziren, **hiri baratzeei** zein **haur eta gazte elkartei** zuzenduak. Alde Zaharrean Piparrikaren muralaren inguruko sormen prozesua bultzatu zen, eta bertatik blog formatuko **baliabide hezitzaile eta dibulgatzailea** sortu zen, poemekin, material artistikoekin eta gogoeta kolektiboekin.



Komunitate mobilizazioa

Mobilizazio ekintzak izan ziren proiektuaren ardatz nagusietako bat. Ermitagaña-Mendebaldea-Donibanen **La Vía Campesinaren #AbegituHaziBat** kanpaina garatu zen, haurrentzako kanpamentuetako jarduerak integratuz eta komunitateko ekitaldi batean amaituz, landaketa kolektiboekin, tailerrekin eta belaunaldien arteko jarduerekin. Alde Zaharrean ekitaldi komunitarioa egin zuten, **Piparrikaren** bidezko merkataritzari eta elikadura burujabetzari buruzko **muralaren** inguruan sortutako hezkuntza baliabidea aurkezteko.



Eréndira Canoren bisita (Mexiko)

2025eko maiatzean, Eréndira Cano etnobiologo eta herri-hezitzaile mexikarraren bisita izan zen. Tailer, topaketa komunitario, elkarriketa eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu zuen, **hazien eta jakintza tradizionalen defentsari** buruzko **Hegoalde Globalaren** ikuspegia emanez.

*Tailerra Nafarroako Hazi Sarearekin
San Juan Xarren*



*Piparrikaren muralerako baliabide
didaktiko bat egiteko prozesua*



*Eréndira Canorekin dinamizazioa
'EncontrArte', Piparrika*

*Jarduera 'Auzotik Mundura' ekitaldian
Udaberri Herri Baratza (Donibane)*



*Psikogorpuztasun tailerra Eréndira Canorekin
Nafarroako Liburutegia*

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA



Lurraldearen Defentsari buruzko mahai-ingurua IM Defensoras, Erdiz Bizirik eta Sustrai Erakuntzarekin, Katakraken

Sembrando Alternativas

Alianzas por el Buen Vivir y la Justicia Social

Nafarroako Gobernua 35.000 €
Iruñeko Udala 8.500 €

1

Elikadura-burujabetza eta elikadura-sistema globalari buruzko sentsibilizazioa

- 4 jardura Nafarroako Liburutegi Publikoekin eta Hegoalde Globaleko erakundeekin, La Vía Campesinako "gizateriaren zerbitzura" kanpaiaren esparruan.
 - "Baratze kritikoa" izeneko erakusketa hobetzea.
- haziak, herrien ondarea

2

Giza Eskubideen defendatzaileak ikusaraztea eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia

- Sentsibilizazio, prestakuntza eta eragin politikorako 13 ekintza, ikuspegi feminista eta arrazakeriaren aurkakoa dutenak.
- IM Defensoras eta Consorcio para el Diálogo y la Equidad Oaxacaren (IM Defensoraseko fundatzaileetako bat) bisita
- "Defendatzaileak, eraldatzen duten emakumeak" erakusketa hobetzea eta hezkuntza baliabide elebiduna.

3

Bizitze Onaren inguruan elkartzeko eta hausnartzeko guneak

- 'Hegoaldeko Haizeak' zikloa: 3 online saio presentzial CPDH, AMIVR eta AIGMIMEkin. Azken saio presentziala METOCArekin NGGKEKan.
- 'Lurraren Taupadak' jardunaldiak Mundubat eta REASEkin: Poetry Slam; Argentina eta El Salvadorreko gobernu ultraeskuindarren eragina; Elikadura sistema publikoen mahai ingurua ANAMURI, Etxalde, Landare, Iruñeko Udala eta SABCrekin; Ekopoesia errezitaldia.

4

Artea tresna hezitzaile eta eraldatzaile gisa

- Zapalduen Antzerki Tailerra Lorena Rofféekin (METOCA) 'EncontrArte'-n.
- 'Kakaoaren ibilbidea' tailerra San Frantziskoko Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin.
- Giza eskubideei buruzko hezkuntza baliabideei buruzko prestakuntza.



*‘Elikadura burujabetzarako haziak berreskuratu’ tailerra
San Frantzisko Liburutegia*

*‘Bizitza aldatzeko Eszena Okupatu’ saioa METOCArekin
GGKEKan*





Mahai Ingurua 'Elikadura Sistema publiko eta unibertsala'
Gustavo Duch, Izaskun Berasategi, Isabel Armijo, Fernando Ustárroz eta Gotzone Sestorain
Katakarak

'Tierra trágame' ekopoesia emanaldia eta mikro irekia
EscoBar Taberna



SENTSIBILIZAZIORAKO BESTE JARDUERA BATZUK

- Erdialdeko Amerikari buruzko sentsibilizazioa (AIGMIM Programa-IPESein Partzuergoa): Beatriz Yarzaren "*Guerrillas para la Vida*" liburuaren aurkezpena IPESen (azaroak 5).
- NUP: "Talde zaurgarriak eta garapen jasangarria" saioa Nazioarteko Garapen eta Lankidetzaren Programan (martxoa eta urria).
- XX Zinema Emanaldia: Mundua eta Giza Eskubideak (azaroak 14-18), IPES, Golem zinema eta Felipe Rinaldi Fundazioarekin antolatua.

*‘Talde zaurgarriak eta garapen jasangarria’ saioa
NUP 2025eko martxoa*



*‘Guerrillas para la Vida’ liburuaren aurkezpena
Beatriz Yarzarekin IPESen*

Kontuak 2025

DIRU SARRERAK	2025	%
BAZKIDEEN EKARPENA	15.681,00 €	2,94 %
DOHAINTZAK	1.260,00 €	0,24 %
HEGOALDEKO PROYEKTU DIRU LAGUNTZAK PL	473.118,40 €	88,72 %
SENTSIBILIZAZIOA DIRU LAGUNTZAL PUBL	40.854,34 €	7,66 %
BESTELAKO DIRU SARRERAK	2.341,76 €	0,44 %
DIRU SARRERAK OSOTARA	533.255,50 €	100,00 %
GASTUAK	2025	%
GASTUAK LANGILEAK	-58.229,62	11,27 %
GASTUAK KONTRAPARTEAK ETA PARTZUERGO	-436.266,94	84,47 %
GASTUAK JARDUERA ARRUNTA-SENTSI.	-16.115,04 €	3,12 %
GASTUAK SAREAK ETA PLATAFORMAK	-1.594,18 €	0,31 %
GASTUAK HORNIDURAK ETA ZERBITSUAK	-4.296,42 €	0,83 %
AMORTIZAZIOA	0,00 €	0,00 %
GASTUAK OSOTARA	-516.502,20 €	100,00 %
EMAITZA	16.753,30 €	



info@mugarikgabenafarroa.org



948 107 337 / 633 506 055



www.mugarikgabenafarroa.org



[@mugarikgabenafarroa](https://www.instagram.com/mugarikgabenafarroa)



t.me/mugarikgabenafarroa



 Mugarik Gabe
Nafarroa

